

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Ekaineko azterketan ez- nahiko eta irailean okerrago

Nire auzoan Daniel izeneko ume bat bizi da. Izena izan ezik, gainerako guztia egia da, egia gordina. Hamar urte ditu. Erdialdeko Amerikan jaioa da, baina laster etorri zen gurasoekin Euskal Herrira. Hemen sortu da bere arreba, Saioa. Plazan lagun asko ditu Danielek, bizikleta gainean ematen ditu orduak, euskaraz txukun egiten du, zoriontsua da.

Orainaldian ari naiz, baina lehenaldian kontatu beharko nuke hau guztia, segur aski. Hasteko, Daniel ez dugu aspaldi luzean ikusi. Amari galdetuta, arreba zaintzeko ardura hartu behar izan duela aipatu digu. Pandemia dela-eta Saioaren haurtzaindegia itxi egin zuten. Amak sei lanpostu ezberdin kateatzen ditu astean zehar, seiak prekarioak. Aita igeltseroa da, goizean goiz ateratzen da etxetik. Hala, haur txikia zaintzeko ardura anaia “handiak” hartu behar izan du, gosaritik hasita.

Hilabeteak igaro ahala, etxean egotera egokitu da azkenik Daniel. Ikastolara itzuli nahi ote duen galdetu diotenean, bideo deiekin moldatuko dela erantzun du: azken finean pantaila aurrean ematen ditu eguneko ordu gehienak, bideo-jokoekin denbora pasa edota arreba horrekin alaitzen. Ikasteko ohitura nabarmen galdu du, euskara zer esanik ez...

Bestalde, amak ez daki ikasturteari nola aurre egin: hasi bezain pronto umeak berriz etxeratu behar badi-tuzte, agian ez duela kurtsoa abiatzeak merezi aipatu du. Bistan da berak ez duela Daniel ikasgelara joan dadin animatuko. Ezin du. Arratsalde partean errazago ikusten du semeak kirol jardunen bat egitea behintzat, baina talde batean izan beharko dela uste du, ikastetxean eskaintzarik ez baitu sumatzen.

Danielena baino egoera samurragoak izango dira, seguru. Larriagoak ere bai: ordenagailua behintzat badi mutilak, gurasoak ez dira gaixotu, zaintzeko aito-na-amonarik ez du munduko parte honetan... Hez-

kuntza formalik gabe ere bizitzen segituko du mutilak, nork esango zigun otsailean lehentasunak hainbeste irauliko zirela...

Irakasle baten tokian jarrita, bestalde, ez da arazorik faltako, halaber: haurrak kutsatzeko edota hurrek zu kutsatzeko arriskua hortxe egongo da, umeak etxera bidaltzeko edota gela edo ikastetxe oso bat ixteko erabakiak ez dira ahobatezkoak izango, gurasoen artean denetariko jarrerak egongo dira (negazionismo itsu- netik eskola haurtzaindegi soil gisa hartzeko joerarai- no), zuzendari guztiek ez dituzte gauzak berdin ikusi- ko, ikuskatzeak ere kontuan hartu beharko dira, Administrazioak batetik egingo du presioa eta sindi- katuek bestetik. Barruko tirabirak ere erantsi beharko zaizkio, zalantzak ez dira makalak: norberaren boka-

Osasunarekin batera, gizarte arrakala, kontziliazioa, publiko/pribatuaren arteko oreka, hezkuntzaren funtzioa... jokoan dira bi aste barru, eta ez, ez da giro

zio mailak ikastolarako itzulera erraz dezake, eta norberaren beldurrak, ordea, galga jarri.

Egungo gizartearen gako gehientsuenak anabasa horretan nahastuko direla antzematen dut: gizarte arrakala, kontziliazioa eta zaintza, hezkuntzaren balioa, osasunari eman beharreko lehentasuna, jakina, eredu publiko eta eredu pribatuaren arteko osagarritasuna, teknologia berrien aukerak eta mugak...

Kontu potolo asko, talka ugari, eztabaida sana, gu- txieneko kontsentsuak eta konponbide irudimen- tsuak eskatzen dituztenak. Maiatzetik jakin bazekiten, maiatzetik jakin bagenekien, baina iraila etorri zaigu gainera ezertaz sakon solastatu gabe, ezer adostu ga- be, aukera ezberdinak irudikatu gabe, alternatibarik sortu gabe, kanpoko ereduetatik ikasi gabe... Agian merezi duguna baino ez dugu izango. •